

HIZKUNTZA GAITASUNEN AZALPENA

B1B1

B1B1en hizkuntza-gaitasunen azalpena

Mailaren jabea gai da:

- Entzundako elkarrizketak eta adierazpenak ulertzeko, lan-esparrukoak, bere interesekoak eta, oro har, gai ezagunei eta eguneroko gorabeherei buruzkoak.
- Hizkuntza estandarrean idatzitako testuen ideia nagusiak ulertzeko, gaia ezaguna, ohikoa edota bere lan-esparrukoa bada.
- Lan-arloko edota gai hurbilen eta ezagunen inguruko elkarrizketetan bat-batean aritzeko, nolabaiteko naturaltasunez eta jariotasunez. Gai da, halaber, lanaren, eguneroko bizimoduaren eta esperientzien deskribapena egiteko, hainbat azalpen emateko eta iritzia agertzeko.
- Testu simple, argi eta koherenteak sortzeko oinarrizko egiturak erabilia, testuak bere interesekoak, lanekoak edota eguneroko gorabeherei eta gaiei buruzkoak badira.

B1B1 hizkuntza-eskakizuna eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) B1 maila baliokideak dira.

B1 mailaren deskribapen orokorra (EEMB)

Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparrukoak, ikasketen esparrukoak eta aisialdikoak.

Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen.

Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake.

Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

B1

IDAZMENA	
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> Gaiari heldu dio. Hitz kopurua bete du. Formatua errespetatu du. (Adib.: eskaera-inprimakia eskatu bazaizu ez idatzi eskutitza). Kontuan hartu du nori idatzi dion, zertarako... (Adib.: agurra egitean “kaixo zuzendari jauna/andrea”, “lankide agurgarria” bezalako agurrak ez dira egokiak).
Koherentzia	<ul style="list-style-type: none"> Testua lehen irakurraldian ulertu da eta irakurleak ez du asmatzen ibili behar izan. Ideiak argi azaldu ditu.
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> Ideiak eta esaldiak egoki lotuta daude eta irakurketa garbia da: oinarrizko lotura-elementuak (eta, baina, hala ere...) eta puntuazioa ondo erabili ditu.
Aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko lexikoa erabili du, eguneroko egoerei dagokiena (norbera, familia, zaletasunak, lana...). Oinarrizko egiturak (konpletiboa, zehar estiloa...) erabili ditu.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> Akats kopurua. Akatsek ez dute ulergarritasuna oztopatu. Akatsak ez dira oso oinarrizkoak izan eta ez dira behin eta berriro errepikatu. <p>Adibidez, ondoko hauek oinarri-oinarrizko akatsak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Atzo joan naiz lanera. - Goizez, 8tik 10era egiten dut lan. - Uste dut ez da etorriko. - Datorren osteguna esango digute. - Ni esan nion kasurik ez egitea. - Ostegunean, etxera joaten ginenean, ikusi genuen Jon.

B1

MINTZAMENA	
Komunikagaitasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Gaiari buruzko azalpenak eta iritziak egoki adierazi ditu. • Elkarrizketan iritzia eta informazioa trukatzeko ez du arazorik izan; hau da, solaskidearekin arazorik gabe trukatu du informazioa.
Jariotasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Ideiak modu naturalean eta erraz adierazi ditu. • Eten bat edo beste egin du baliabide bila. • Bat-bateko elkarrizketan natural eta erritmo egokian moldatu da.
Aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko lexikoa (norbera, familia, zaletasunak, lana...) eta oinarrizko egiturak erabili ditu. • Simple adierazi ditu ideiak.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Akats kopurua. • Akatsek ez dute ulergarritasuna oztopatu. • Akatsak ez dira oso oinarrizkoak izan eta ez dira behin eta berriro errepikatu. <p>Adibidez, ondoko hauek oinarri-oinarrizko akatsak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Trena hartu genuen bidai turistiko egitera.</i> - <i>Auto iaz erosi dugu.</i> - <i>Bi bide daukagu han joatera.</i> - <i>Nire umeari asko gustatzen zaie.</i> - <i>Haiek pentsatzen ari dute jaietan nora joango gara.</i> - <i>Jatetxe batean joaten bagara...</i>